



"Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruía"

(Bernardo Etxepare)

Buenos Aires, 1954-Bagilla-9'gn.de 195

VIII'gn Euskel-Ikastaro Nagosiko Lendakari jaunari.
BAYONA'N.

Agur jauna:-

Gure Euskeltzale Bazkunak, abegi onez, eta maitasun aundiz, bere kemena ta biotz agurra zure bitartez or batuko zarien jaun agurgarri gustiori bialtzen dautzube.

Argentina eta Uruguay'en euskerearen alde egin diran lanen agerpide txiki bat be onegaz batera doa.

Batzorde onek igarotako larunbatian, zueri eskari bat erabagitea be artu eban.

Euskera goraldu bear da, ba arerio gogorrak dituz gaur geure aberrian. Euskera galtzen bada, galduak gara. Eta bere aldez, eta berau zabaltzeko, emen beintzat, alkartuta ga-goz. Zuek batu baño len, emeko aldizkingi EUZKO-DEYA'gaz batera, euskel-orri bat ateratzen asiko gara. EUSKALTZALEAK ixena eukiko dau, eta bi-illabetez batean aterako da. Dana euskeraz. Al dala euskera erraza erabiliko dogu, gai errazak, euskeldunen artean euskeraz irakurtzen zaletu dedizan.

Zueri egiten yatzuen eskaria da, batzarrak egiten douezanian, ludo gustiko euskeldunari, egin dayezuen eskari bat. Au da, EUSKELTZALE ixenagaz, euskeldun taldiak batu eta egin dayela geure ele alde al daben gustia. Euskeraz irakatsi, euskera zabaldu, gai gustietaz, eta bazkidek egin, berari laguntzeko. Guk urte batzuk daruaguz, eta lan txiroa, baña onurakorra egiten dogu. Au gaitik EUSKALTZALEAK ixenagaz, beste geure antzeko bazkun asko ikusi nai gendukez ludi zabal, eta zuek ixango dezue aukera ederra eskari au egiteko. Geure araudiak be, onen bitartez bialtzen yatzubez.

Agur jaunak, eta ixan daizuezela onurari aundienak or egingo douezan batzarretan

Irka'hai'epudoni
IDAZKARIA



"Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia"

(Bernardo Itchepare)

Buenos Aires, 1955-Loralla-25'gn... de 195.....

" H E R R I A " . -
8, Rue Jackes Laffite.
B A Y O N N E. (B.P.).

Agur jaunak:-

GALDOS'TAR F. ERREGINO ZARIA.-

Jaun au Amasa (Gipuzkoa'n) orain eun urte jayo zan. Urte askoten Uruguay'en bizi izan zan, eta an il zan. Euskera ainbat maite izan zun, baita euskel-oiturak be, bere aberrik urrin bizi izan arren, eta ez bakarrik ori, bere sendiari be, Amerika'n jayo eta bizi arren, ma itasun ori gogoz ezarri eutson.

Au gaitik, bere ondorenguk, euskera eta euskel-oiturak maite izenez, eta euren guraso ona zenaren opalmenez, 1.000 peso argentinarren zari bat eskeintzen dute.

Zari au eusko-baserriatiaz idazkirik onena bialtzen dutenentzako izango da. Bertsoen nai idazki-leunez bialdu leike, nai dan luzeeran.

Len au EUSKALTZALEAK.- Belgramo, 1144.- Buenos-Aires'era aurtengo Urrillaren 30'rarte artuko dugu.

izenpetu barik bialdu bearko da, atzalburu bat autatuz eta idazkazal baten barruan, berton jarriz lana bialtzen duten jaunen izen-abizenak, zuzenbidea eta aukeratu duten atzalburua.

Epai-maya EUSKALTZALEAK izentatuko du, eta bere garayan jakin-azo epailarien izena.

Arren egin zabalkundea, zari au artzeko ardurea dauken jaunak lenak bialtzen asi daitezen.

Beste barik, biotz-biotzez

Artza'tar Andoni
Artza'tar Andoni
IDAZKARIA



"Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruía"

(Bernardo Etxepare)

Buenos Aires, de 195.....

EUSKAREA ARGENTINA ETA URUGUAY'EN.-

Aberri onetara etorritako lenengo euskotarrak, euskeldunak izan zirala esan geinke.

Auñamendiz aruntz eta onantzakuak, alkarrekin nastu, eta euskeraren bide alkar ulertu zirala, zetan esan eztago. Jakifia, euskera eztala bardin-bardifia, Euzkadi'ko toki gustietan, baña, alan da be, ederto alkar-ulertzen ziran. Onek eztau esan gura, batzuk uzte daben lez, izkuntza barri bat sortu ebela. Gertatu zana, batak eta bestiak, alkar ibilliagaz, aguro ikasi ebela, alkar ulertzen, baña, bakotxak euren sorterriko euzkera bakar-bakarrik erabiltze eben.

BhetHarram'dar lekaide edo prailleak, itzaldi, ibillaldi, eta idaztiak, geyenez, napar edo lapurdieraz egiten ebezan. Tamala, esin ezto gula lortu ixan, ba aldi artan, euskera ugari ibiltzen zan, eta euskeldunak eliz jai ederrak egin ebezan, baña ezin lortu ixan dogu ezer non dagozan eztakigulako, ba lekaide eurek be eztauke ezer gorderik.

Lenengo agertu zan izparringi edo aldizkingia, EUSKARIA ixenekua zan. Lapurdi, Zuberu, eta Benabarraz idatzia. Gero "LA BASKONIA" agertu zan. Au Gipuzkeraz ta Bizkayeraz idatzita, baña erderaz be bai.

Salerosle, ta lantegi jabe ziran euzkeldun taldiak be alkarrekin batzen ziran, baña beti bakotxak erabilli dau bere sorterriko euzkera.

LAURAK-BAT'EN, geyen erabiltzen zana, ta orain be bai, gipuzkeraz eta bizkayerazko euzkera da. Bardin gertatzen da, gaurko egunian ateratzen diran idazki eta aldizkingietan.

Dana dala, abestiak, eta beste euskerazko gauzak, bardin erabiltzen dira, edozein eratan. Ifok eztau eragozpenik onetzaz ipinten. Euskeldun artean, euzkera erabiltzeko zaletasuna, orain len baño geyago dalakuan gagoz.

Inoiz ezta idatzi beintzat orain baño geyago. Ill onen azkenian, lenengo euzkel-izparringia be ateratzen dogu. Bi illean bein aterako da, eta EUSKALTZALEAK ixena ixango dau.

Bs. Aires, 1954-6-5' gn.

*Manoia for Basoia
Londakaria*